

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 4708

*EBAZPENA, 2015eko uztailaren 8koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Kirol Management, S.L.U. erakundea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde gisa aitortzen duena.*

Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren bidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea izateko aitortzen da, helburu izanik emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten baldintzak sustatzea, berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzen laguntzen duten baldintzak sustatzea, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasunaren alde gizar-tean eta lan-eremuan sor daitezkeen ekimenak bultzatzea eta entitate horiek guztiak berdintasunaren alorrean egiten duten lana aitortzea.

Horregatik, Kirol Management, S.L.U. erakundearen ordezkari gisa Eduardo González González jaunak aurkeztutako eskabidea ikusita, eta erakunde horrek emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako politika bat garatzeko sinatutako konpromiso-agiriak baloratu ondoren, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Kirol Management, S.L.U. erakundea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea dela aitortzea, azaroaren 8ko 11/2014 Dekretuan ezarritako zehaztapen eta baldintzen arabera, erakunde horrek emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako politika bat garatzeko sinatutako konpromiso-agiriak oinarri hartuta (11/2014 Dekretua, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitortzen duena).

Bigarrena.— Aitortzen indarrean den bitartean, Kirol Management, S.L.U. erakundeak aitortzen hori bere irudi korporatiboa osatzen duten elementuetan erabili ahal izango du, 11/2014 Dekretuaren 12., 13. eta 14. artikuluekin bat etorritik.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, aurka egiteko, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean —ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera—; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean —ebazpena aipatu aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera—.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 8a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.